

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

## 723

*AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 31koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko urtarrilaren 16ko Agindua (urtarrilaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duena Justizia Administrazioaren kidego eta eskala hauetako funtzionarioentzat: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzea eta Laguntza Judiziala.*

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko urtarrilaren 16ko Aginduaren bidez, lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten da Justizia Administrazioaren kidego eta eskala hauetako funtzionarioentzat: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzea eta Laguntza Judiziala.

Akats bat aurkitu da I. eranskinean (eskainitako lanpostu hutsen zerrenda). Hori dela eta, aldatu beharra dago I. eranskin hori, behean adierazten diren lanpostuak kenduz, funtzionario titularrek betetzen baitituzte. Sortzen diren erresultei eutsi egingo zaie. Horrela, ordena-zenbakiak erresulta-zerrendan jasota daudela ulertu behar da, eta, beraz, haiek eskatu dituzten funtzionarioek erresulta gisara eskatu dituztela joko da:

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 31.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

## ERANSKINA

Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa.

Ordena- zk.	Izena	ATP	Udalerrria	L.H.	Hutsa	Erresulta	Lanpostua	Dotazioa
3124	Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegia	Gestión P.A.	Bilbao	Bizkaia	1	X		

Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Izapidetza.

Ordena- zk.	Izena	ATP	Udalerrria	L.H.	Hutsa	Erresulta	Lanpostua	Dotazioa
8439	Merkataritza Arloko 2 zenbakiko Epaitegia	P.A. Izapidetzea	Bilbao	Bizkaia	1	X		
12180	Probintzia Fiskaltzaren Bulego Fiskala	P.A. Izapidetzea	Bilbao	Bizkaia	1		580013	1